

HERRICO BESTA.

AIREA : *Hau da Frances istuendaco allegrancia handia.*

1.

Herrico besta denaz gueroz , aurthen cantuen suyeta ,
Nie ere cerbeit erran nahi , deçagun dembora pasa ,
Ez naiz , sobra dakit , sasona ganda ,
Guehiago gazte , bai hala da ,
Banan egun huntan çaharric nihon causitcen othe da ?
Ez , thamburen chirola sonuz guciac airosten guira .
Goacen beraz çahar gazteac , goacen herrico plaçarat ,
Atseguinez hain aberax den egun huntaz gozatcerat. (Ter.)

2.

Egun guciçz famillac dira , milla guisaz , barrayatecen ,
Anaya arreba yosienac elkharrenganic urrunteen ;
Amac nigarretan umeac deitecen ,
Harren boça nihore ez aditcen .
Banan herre bestarekin , guciac etcherat bilteen ,
Beren burhaso maite hoçec amulsuki besareatcen .
Egun eder , egun goçoa , atseguinez gainditua ,
Berantegui aditu duçu gure bihotzen oihua ! (Ter.)

3.

Guicõn gazte gorphutz lerdena , hunat guerrico gorria ,
Eta çue nescatcha criketa , laster cache soìn çhuria .
Goicetic dembora dago garbia ,
Nihon hedoi bat ez , cer loria !
Yadan urrundic ikhusten dut plaça yendez estalia ,
Lot beraz çuen makhilleri , lagunac gaiten abia .
Goacen , goacen çahar gazteac , goacen herrico plaçarat ,
Atseguinez hain aberax den egun huntaz gozatcerat. (Ter.)

4.

Plaçarat heldu garenean , cer çaiçu colpez aguertcen ?
Sei herronketan gazteria , çaharrac ez ciren azken ;
Çortei pillotari dira yokhatecen ,
Beguiac dituzte lilluratecen .
Nahiz orano bere boça nihore ez duen althatecen ,
Segur naiz bakhotchac duela gogoz bederen cantatcen :
Egun eder , egun goçoa , atseguinez gainditua ,
Berantegui aditu duçu gure bihotzen oihua ! (Ter.)

5.

Aurthen Urruna lehen dugu , besta guciçn nagusi ;
Ikhusten dut eta halere casic frogaric ez aski ;
Cein goradanic den Printcebat yautsi ,
Gurekin egungo khide yarri .
Escualdunac ! ez da seculan Yaun hori behar ahantzi ;
Ez orai bakharric bihotzez , canta deçagun goraki :
Biba , biba gure Printcea , hambat talentuz bethea
Talentuen berdina dago choilki çure berthutea. (Ter.)

6.

Nahiz milla gauça nintuzken oraino nie erraiteco ,
Printceaz mintçatuz gueroztic , guciac litezke flaco .
Lurrera cerutic ez erortceco ,
Muga da nere ustez ichiltceco .
Aski beraz , bestaliarrac orai , etcherat gateco ,
Amarra çuen escarpinac , ama guci beira dago .
Goacen , goacen , goacen guibelat , banan heldu den urthean :
Aurkhi gaiten , nere lagunac , aurthengo toki berean. (Ter.)

LARRBALDE, *Miricua.*